

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2581

EBAZPENA, 2017ko apirilaren 26koa, Kulturako sailburuordearena, 2017. urtean praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kulturagune independenteei zuzendutako diru-laguntzak jakinarazten dituen (Sorgune deialdia).

2016ko abenduaren 30eko EHAA n argitaratu zen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2016ko abenduaren 22ko Agindua, praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kulturagune independenteei zuzendutako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu horren 12.2 artikulua dioenez, Kulturako sailburuordeak hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizatua egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2016ko abenduaren 22ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta haien onuradunak jakinaraztea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 26a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2017ko maiatzaren 25a, osteguna

ERANSKINA

Diru-laguntza eman zaien zerrenda.

| Eskatzailea | Proiektua | Diru-laguntza |
|------------------------------------------------------|---------------------|---------------|
| Arrakala Koop Elk Txikia | Baratza | 106.514,00 |
| Asoc de malabaristas y artistas de circo Zirkozaurre | Haztegia 2017 2018 | 112.803,00 |
| Asociacion cultural Histeria Kolektiboa | La Karpinteria | 103.291,00 |
| Asoc Wikitoki elkarsorkuntzarako laborategia | WikiToki | 119.236,00 |
| Asociación Esteka Elkartea | Arropaineko Arragua | 118.156,00 |